

KOSTUEN EGITURA:

Hainbat kostu izango ditugu, lehenengo kostua eta hasieran gehien aurre egitea kostatuko zaiguna lokala izango da, baina lehen aipatu bezala Beasaingo eta Irungo udalak lokala eskeiniko baligute ez guke kostu handirik izango, ala ere lokal horren truke diru pixka bat eman beharko genieke udal horiei. Lokal horretan hipermerkatuei esker eta bezeroei esker lortutako produktuak gordeko ditugu, hau da, janaria, arropa...

Gainera, garraioak ere kostu handi bat suposatuko digu, hau mugara janaria eta arropa eramateko izango da, gasolinak gastu handia suposatuko liguke. Gasolinaz gain, furgoneta bat erostea pentsatu dugu eta horrek ere gastu handia eragingo digu.

Mugan, lokal handi bat izango dugu sukalde batekin, horrela Goierrin lortutako elikagaiak mugara bidali eta bertan prestatuko ditugu. Sukaldean bertan izango ditugun etxe-tresna elektrikoak ere kostu bat izango du, baina ahalik eta merkeen lortzen saiatuko gara. Sukaldatzeko garaian ere argindarra beharko dugu. Etorkinei prestatutako janaria emateko berrerabilgarriak diren tuperrak beharko ditugu, hasiera batean tuper horiek erosteko diru kantitate handi bat beharko dugu. Gaur egungo egoera dela eta, plastikoak eragiten duen kutsadura dela eta, berrerabilgarriak diren tuperrak erabiltzea erabaki dugu. Gainera horrek kostu txikiagoa eragingo digu izan ere plastikozkoak diren tuperrak egunero bota beharko genituzke eta kutsadura handitzeaz gain, kostu handiagoa suposatuko liguke.